



Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak Lorategi Hiriaren esparruan 98 etxebizitza babestu eraikitzeko akordioa sinatu dute

- Denis Itxasok eta Eneko Goiak gaur goizean sinatu dute hitzarmena, Gipuzkoako hiriburuko etxebizitza babestuen ziklo berriko jarduera sinbolikoenetako bati ekitea ahalbidetuko duen hitzarmena
- Eragiketa bide-orri partekatu baten barruan dago, epe labur eta ertainean 1.350 etxebizitza eta zuzkidura-bizitoki baino gehiago aurreikusten dituen bide-orrian, eta nabarmentzekoa da aurki Lorategi Hiriko sustapenaren obrak eta 2026ko erdialdean Loiolako Erriberako 83 zuzkidura-bizitokiaren obrak hasiko direla
- Denis Itxasok onartu duenez, “arrazoizko alternatibarik ez izateagatik gaur egun merkatutik kanporatuta daudenentzat Donostian bizitzea posible izatea nahi dugu”
- Eneko Goiak nabarmendu duenez, “beste urrats bat egin dugu Urumearen ardatzean etxebizitza-aukera berriak sortzeko helbururantz, eta urte batzuen buruan Loiolako kuartelen lursail erosi berriaren egingo den garapen berria gehituko zaio horri”

Donostia, 2025eko uztailaren 29a.- Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak lankidetzak hitzarmen bat sinatu dute gaur, Loiola auzoko Lorategi Hiriaren esparruan 98 etxebizitza babestu sustatzeko. Eusko Jaurlaritzari babes ofizialeko etxebizitzak eraikuntza aktibatzeke bi udal-partzela doan lagatzeko akordioa sinatu dute Eneko Goia alkateak eta Denis Itxaso Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak. Ekitaldia Loiolako Lorategi Hiriko hirigintza-esparruaren erdi-erdian izan da, eta beste urrats bat irudikatzen du Gipuzkoako hiriburuan etxebizitza eskuratzeko krisiari aurre egiteko instituzioen arteko konpromisoan.

Eragiketa Visesa sozietate publikoaren bidez egituratuko da, bere 2026ko Programa Kontratuan jaso duenez: araubide orokorreko babes sozialeko 63 etxebizitza eta araubide autonomikoko 35 etxebizitza tasatu. 4. eta 5. partzelak guztira 2.700 m²-ko azalera dute eta Lorategi Hiriko hirigintza-garapenaren erdigunean daude. Udala urbanizazio-obra egiten ari da dagoeneko bertan, eta ingurumena errespetatuko duen garapena aurreikusi da, energia-efizientziako eta kontsumo ia nuluko irizpideak lehenetsita. Sustapen honen obra 2026aren erdialdean hastea aurreikusi da, garabiak hiriarentzat giltzarria den beste garapen batera iristearekin batera: Loiolako Erriberako zuzkidura-bizitokiak.

Etxebizitza eskuratzeko konfiantza berreskuratzea

Ekitaldian, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak akordio honen garrantzia nabarmendu du, Donostian etxebizitza eskuratzeko arazoari aurre egiteko bultzada estruktural baten parte gisa, eta, errekonozitu duenez, “sinadura honekin konpromiso politiko sakon bati jarraipena ematen diogu”. Gainera, azpimarratu duenez, “Donostian bizitzea berriro posible izango da gaur egun alternatiba eskuragarri ez izateagatik bizitegi-merkatutik kanporatuta daudenentzat”. Era berean, hau



nabarmendu du: “hirian hedatzen ari garen etxebizitza babestuaren proiektu handinahiaren piezetako bat baino ez da Lorategi Hiriko jarduketa”. Itxasoren hitzetan, “gure gain hartu dugu 1.350 etxe baino gehiago eraikitzea, etxebizitza duina izateko eskubidea ezin baita oztopo-lasterketa izan klase ertain eta langilearentzat, eta are gutxiago donostiarren belaunaldi oso baten garapen pertsonal eta profesionalerako oztopo”.

Eusko Jaurlaritzak lehentasuna eman dio jarduera honi, Donostiak duen bizitegi-testuinguru konplexuagatik, batez ere gazteek eta klase ertainek etxebizitza eskuragarria izateari dagokionez. Denis Itxasok zuzentzen duen sailaren hedapenak 500 etxebizitza aurreikusten ditu trenbide-zabaltzan, 400 Txomin-Enea II.n, 83 zuzkidura-bizitoki Loiolako Erriberan, 98 Eliseo Zelaietan (Martutenen) eta beste 180 Morlansen, gaur iragarritako Lorategi Hiriko 98 etxebizitzek gain. “Donostian eskuragarri dagoen lurzorua aktibatzen ari gara, ehunka familiarentzat benetako aukera bihur dadin. Estrategia irmoa da, planifikatua eta administrazioen arteko ulermen handiagoan oinarritua”, gaineratu du sailburuak.

Bestalde, Eneko Goiak eskerrak eman dizkio Eusko Jaurlaritzari esparru hau garatzen jarraitzeko erakutsi duen inplikazioagatik, etxebizitza babestu berria sortuta. Hala, adierazi duenez, “esparruaren berroneratzea aurreratuta dago, eta laster ikusi ahal izango ditugu bukatutako lehen etxebizitza-eraikinak eta bide-aldaketak, bai Lorategi Hiriko garapen berriari, bai Loiola auzoari zerbitzua emango diotenak; izan ere, azken hori jadanik ez da ikusiko ingurune hori Erriberatik banatzen zituen elementu gisa, aldameneko inguruneekin hobeto konektatzen duen auzoaren jarraitutasun gisa baizik”. Horrela, Goiak nabarmendu duenez, “auzo berriak 264 etxebizitza berri izango ditu, eta horietatik % 40 babestuak izango dira, eta ekipamendu eta berdegune berriak ere hartuko ditu, Lorategi Hiriari eta Loiola auzoari ere aisialdirako aukera berriak emateko”.

Ildo horretatik, Donostiako alkateak azpimarratu duenez, “ingurune hau berroneratzearekin batera, beste urrats bat egin dugu Urumearen ardatzean etxebizitza-aukera berriak sortzeko helbururantz; urte batzuen buruan, gainera, Loiolako kuartelen lursail erosi berrian egingo den garapen berria gehituko zaio, zuzenean konektatuta egongo dena, bai Loiolarekin, bai Lorategi Hiriarekin, eta hiru kokaleku horiek erdigune berri bihurtuko dira hiriarentzat, konexio hobeekin, irisgarriagoekin eta zerbitzu berrieekin”.

Gaur Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak sinatutako hitzarmenak bultzada berri bat ematen dio hirian bizitegi-merkatuaren tentsioa geldiarazteko estrategiari, eta udal-tasen salbuespena eta EIOZaren % 95eko hobaria ezartzen ditu, estrategia horren bideragarritasuna errazteko. Joan den maiatzaren 14an Donostia eremu tentsionatu izendatu zutenetik, neurri estrukturalak jarri dira abian etxebizitza publikoen parkea zabaltzeko eta donostiarrei etxe duin baterako sarbidea errazteko. Udalak eta Jaurlaritzak etxebizitza-merkatuaren eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka iraultzeko hitzartu duten [hiru urteko ekintza-planaren](#) parte dira bultzatutako ekimenak.